

## **JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2017/18 - BERRIKUNTZAK**

Jardun Akademikoaren Planaren Jarraipena Egiteko Batzordeak, 2016ko irailaren 22an egindako bileran, 2015/10/01ean Gobernu Kontseiluak onartutako Jardun Akademikoaren Planean zenbait garrantzi txikiko aldaketa, zuzenketa eta ñabardura sartzea onartu zuen. Onartutako testua 2017/18 ikasturtean eta hurrengoetan egongo da indarrean. 2016/17 ikasturteko JAPa aplikatzean egin diren interpretazioak islatu nahi dituzte Batzordeak onartutako ñabardura eta zuzenketa horietako batzuek.

### **APLIKAZIO BALDINTZETAN ALDAKETAK IZAN DITUZTEN JARDUERAK (2017/18ko JAPeKO KODEAREKIN)**

- **IKER3.** Ustiatzen diren patenteak sartu dira kontzeptu honetan.
- **IKER2 eta IKER4.** Bi kontzeptu hauen aurreko idazkera nahasia zenez, 2016/17 ikasturteko JAPean aplikatu ziren erara egokitu da. Bestalde, IKER4 kontzeptuari dagozkion kredituak aldatu dira. 2017/18 ikasturteko JAPari begira honako modu honetan geratu dira.

MEREZIMENDU MOTA	ITEMA	IRAKASLE ETA IKERTZAILE MOTA	KREDITUAK	OHARRAK
UPV/EHUko, autonomia erkidegoko edo estatuko deialdietako taldeak edo proiektuak.	IKER2	Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak.	Kreditu 1	KREDITUOK EZIN DIRA PILATU
9.000 eurotik gorako kontratuak.	IKER2	Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak.	Kreditu 1	
ERC bateko <i>granteea</i> .	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	6 kreditu	KREDITUOK EZIN DIRA PILATU
Partzuergoan garatzen den proiektu bateko burua izatea	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	5 kreditu	
Nazioarteko ikerkuntzako edo Europar Batasuneko Esparru-Programako proiektu bateko ikertzaile nagusia izatea	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	4 kreditu	
Nazioarteko ikerkuntzako edo Europar Batasuneko Esparru-Programako proiektu bateko kidea izatea	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	2 kreditu	
Urtero 150.000 eurotik gorako kontratuetak/ hitzarmenetako ikertzaile nagusiak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	4 kreditu	
Urtero 150.000 eurotik gorako kontratuetak/ hitzarmenetako kideak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	2 kreditu	

\*IKER2 eta IKER4 arteko jarduerarik onuragarriena kontuan hartuko da.

## **JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2017/18 - BERRIKUNTZAK**

- **EI8- UPV/EHUko doktorego programen gestioa.** Doktorego programek kredituen aitortpena jasotzeko bete behar dituzten baldintzak araudian zehaztu dira berriro: 1393/2007 EDren eta 99/2011 EDren babespeko UPV/EHUko doktorego programak kudeatzea, baldin eta programa horietan gutxienez doktorego tesi baten proiektua inskribaturik eta defendatu gabe bada eta aurreko ikasturtean gutxienez tesi bat defendatu bada.
- **EI9- UPV/EHUn emandako unibertsitateko master ofizialen gestioa.** Masterreko Batzorde Akademikoari dagozkion kredituak batzordekide guztien artean banatuko direla zehaztu da.
- **EI11- Euskarazko argitalpenak.** 2016/17an ez bezala, 2017/18 eta hurrengo ikasturteetako JAPean, ikasmaterialez gain, bestelako Euskarazko argitalpenak ere hartuko dira kontuan. Atal honetan, gehienez, 2 kreditu lortu ahal izango dira.
- **G4- ENQA eta antzeko batzordeetako kideak.** Kontuan hartzen diren batzordeen zerrenda zabaldu da eta honako hauek gehitu dira: ETPs (European Technology Platforms), JTIs (Joint Technology Initiatives), KICs (Knowledge Innovation Communities) direlakoan jardunean dauden akreditatuko kideak, Europako H2020 proiektuen ebaluaketan parte hartzeko Europako Batzordeak izendutako adituak. SGikerreko aholkulariak.

### **JAPetik DESAGERTU DEN JARDUERA (ETA HAREN KODEA 2016/17ko JAPean)**

- **G8- Kredituen aitortpena aurreko urteetan egindako gestioagatik.** Seiurtekoaren iraunaldiak garrantzia galdu duenez, kontzeptu honek bere esanahia galdu duela pentsatu da.

Informazio gehiago behar izanez gero, arautegi osoa ikusgai dago honako esteka honetan:

[http://www.ehu.eus/documents/3087158/3127975/2017\\_18ko+UPV\\_EHUko+irakasleen+JAPa.pdf](http://www.ehu.eus/documents/3087158/3127975/2017_18ko+UPV_EHUko+irakasleen+JAPa.pdf)